

Nafarroa

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1995eko maiatzaren 19a / VI. urtea / 179. zenbakia

Dúela 150 urte inguru heldu ziren lehendabizikoak, ozeano eta kontinente bana zeharkatu ondoren. Nafarrak izan ziren lehenak, bizkaitarrak ondorengoak. Artzainak gehienak. Euskaldunak denak. Han laketu, errotu eta zahartu ziren batzuk, itzuli bestetzuk. Ehun mila inguru dira egun. Amerikanoak. Indianoak. Haien euren buruei 'amerikarrak'. Eta euskaldunak. Beren historiari buruzko liburua atera

berri du Joseba Etxarri kazetari donostiarrak, zortzi bat urte haien artean ibili ondoren, bisitari, jakinminez. Gorde egin dute euskara eta gorde euskal kulturaren hainbat arrasto. Mendebaldean —Kalifornia, Nevada, Idaho— ezagunak eta zenbait herritan garrantzi handikoak, Florida, New Yorken edo beste estatuetan ere beren aztarnek oraindik gaur egun bizirik dira. Euskal amerikanoen.

Amerikanoak



Moleres anaiak —jatorriz baxenabartarrak baina Mew Mexicoko Grants herrian sortuak—, inguruko eskola guztietako haurrak eramateko dituzten autobusen aurrean. JOSEBA ETXARRI

Luis Fernandez eibartarraren 'Tetris' liburuan —artetik errateko, gomendagarria arrunt—, irakurri dut berriki: «Zenbakien logikan ezer gutxi dugu egiteko euskaldunok. Eta autodeterminazio politikoa, hein handi batean, zifra kontua da. Inon badago, letretan egon behar du gure etorkizunak. Kultur borrokan. Gutxiengo garen heinean, gutxiengo-estatus ahalik eta errekonozituena erdiestean, eta gizarte eraldun handiagan posizio ahalik eta egonkor eta indartsuena irabaztean». Hirugarren esaldiari «eta ekonomian» erantsiz gero neure eginen nuke oso-oso-oso erroaldea.

Gure hizkuntzak hondar hila-beteetan Nafarroan egin duen aitzinapauso(ño)rik azpimarkatzekotan, hemengo aurrezki kultura batek gure alorrean egin duen

sarraldia nabarmenduko nuke nik ez bairik gabe. «Orain euskaraz mintzatzen gara» dio bere kutzazain automatikoen birziklaiaren emaitza harroantza erakusten duten foileto koloretzuetan. Traste horietan ez ezik, Mendialdean ari ahala ari omen da bere zerbitzuak egokitzen, bertsolari txapelketaren esponsorizazioa bere gain hartu du eta inoiz ez bezala agertzen da haren publizitatea 'Ttipi-ttapa' eta gainerako euskal aldizkarietan. Leizarragaren Bibliaren pasadizo xelebrean izan duen parte hartzeaz ere ez naiz atzentzen. Beharbada ez da aunitz, baina bai azken urteetan Nafarroan sektore berean ari diren entitate gehienek

Amen eta omen

AIINGERU EPALTZA



eskaini digutena baino aise ere gehiago.

Omenei kasu egitera, delako aurrezki kutzako zuzendaritza posturen batean sarturiko jende berriak eragin du aldaketa. Giza faktorearen garrantzia ukatu gabe, ordea, denek dakigu banku eta kuxten munduan dabilenak bere pentsamoldea non altxatzen duen: patrikan. Bertzela erranik, oinarrian 'arrazoi komertzialik' ez balitz, ez ginatkeen bat-bateko sukarrak euskaltzale horren lekuko gertatuko.

Bai, gure sosak nahi dituzte. Badugun (eta bertze nonbait ezartzen dugun) seinale. Kapitalismoaren zikinaz hasiko zait noski bat edo bat, baina nik, bür-

geskeriak jota doike, ez dut bekaturik ikusten horretan. Berri ona da, eta ez seguraski minimoen azpitik geldituko diren berrikuntzen tamainagatik, adierazten duenagatik baizik. Nafarroan, 'gure' munduan arrotz den norbaitek bezero potentzial multzo bat ikusi du guregan. Nolabaiteko indarra aitortzen zaigu komunikatzaile garen aldetik. Haiendakoz, bederen, ez gara lau fardel sakel-hutsak, euskaltzale bat baino gehiago iduri hori barreiatzera nekatu gabe saiatzen bada ere.

Ez da harritzekoa puntua eman digun lorpen ttiki horretan 'euskararen aldeko herri mugimendua' zaion horrek eskurik eduki ez izana. Haren puxka nagusia 'proletarioz' moztortua dabil oraindik soin eta garun, hondar ezdeusa garai joanen azarna arkeologikoen museoa.

Arrazoi komertzialak

GUERE AUKERAK

IKASTAROAK

Kartografia eta **Orientazioa** ikastaroak antolatu ditu heldu diren asteetarako Goi Mendiko Eskolak. Bertan parte hartzeko inskripzioak 5.000 pezeta balio du federatuta daudenentzat eta 7.000 besteentzat. Izena emateko Mendi Federazioko egoitzara joan behar da (Paulino Caballero, 13, 3.).

Eskalada ikastaroak antolatu ditu Goi Mendiko Eskolak datozen asteetarako. Bata deus ez dakitenentzat izanen da, eta bestea teknikak hobetzeko. Etxauriko arkaitzetan eta Artederretan emango dituzte. Izena emateko Mendi Federaziora jo behar da.

ANTZERKIA

Hika antzerki taldeak 'Las bellas de Easo' izeneko lana taularatuko du bihar larunbata, hilak 20, Aratzur. 'Udaberriko Bira' programaren barruan, gaueko 10.00etan hasiko da, Kultur Etxean.

'324 joku' izeneko antzezlanaz plazaratuko du asteburu honetan P.A.I. Haur Animazio taldeak Ledea eta Aberin herrietan. Bihar arratsaldeko 8.00etan Ledeko pilotalekuan ariko dira, eta etzi, igandean, Aberinen izanen dira eguerdiko 12.00etan, pilotalekuan.

'Apanize' izeneko ikuskizuna ikusteko aukera izanen da heldu den ostegunean, hilak 25, Iruñeko Antzerki Eskolan. Koldo Ameztoti eta Pascal Gaigne ipuin kontalariak izanen dira bertan. Sarreak 600 pezetan salduko dituzte.

BESTELAKOAK

Txiste Afaria izanen da bihar larunbata, hilak 20, Etxalekun, Imotz-Basaburuko Euskara Zerbitzuak antolatuta. Bertan Guillermo Segurola eta Mendizabal izanen dira, tarteka Bixente trikitilaria ariko delarik. Afariak 2.000 pezeta balioko du eta alde zuzenetik izena eman behar da 50 30 13 telefonoan.

Iñaki Murua eta Sebastian Lizaso bertsolarien saioa izanen da gaur ostirala, maiatzak 19, Sunbillan. Bertso afari moduan antolatua, gaueko 9.00etan hasiko da.

'Baron Rojo' eta **'Gandalf'** musika taldeek kontzertua eskainiko dute gaur ostirala, hilak 19, Garesko dantzalekuan. Gaueko 11.00etan hasita, sarreak 1.500 pezetan salduko dituzte. Bihar, berriz, 'Australian Blonde' taldea ariko da, ordu berean hasita, eta sarreran 1.000 pezetan izango dira.

NAFAR KRONIKA

JON ALONSO

Kanpaina lasterketa bezala

Ezin dute galarazi, kontrako egoskorrak zer egiten duen berdin zaiela euren buruak konbentzitu nahi badituzte ere, zeharkako soakoak botatzen dizkiote elkarri, bestearen begira daude uneo-

karren bat ezik. Eta gauza hala joango da benetan gatazka, egiaren ordua iristen zaien arte. Pello Ruiz Cabestanyk kontatzen zuen aste honetan bertan.

Karrerista ohia ez ezik zi-

alderdi horretatik ezin gaitzkeela keelatu. Niri gehien gustatu zaidana da propaganda elebidunarena. Gaztelera-katalanera, kontuz. Ba al liteke ederragorik eta egokiagorik gure izaera *anitza, plurala-*



ro, zain, alegia. Ez dute erremediorik, odolean daramate, irabazle petoak dira.

Bide paraleloak aukeratu dituzte, eszenatoki ezberdinak, eta, nork bere lubakian indarra erakutsiz, estrategia psikologiko hondatzaileenak garatuko dituzte; gainerakoek, aurrendenboraldi txarra egin izanaz damaturik, edo sasoiatik betiko joan ote zaien beldur, beharbada, bi kontrarioek utziko dizkieten ogi apurrekin konformatu beharko dute —gixajoak—, akzen orduko eta metroetako lasterkari az-

klismoak daukan kronistari onena dela oharturik soilik atzeman ahal izan nuen hementxo hauteskunde kanpainaz ez zela ari. Alegia, *Tourraz* ari zela, eta ez *tourradaz*.

Kanpaina, lasterketa bera bezala, gauza gutxi salba dezake: denon epopeiaren egarria asetzen duen bi heroe nagusiren arteko lehiak, edo anekdota irigarriren batek. Epopeiako antzesleak ajetuegi iruditzen zaizkigunoi bigarrena baizik ez zaigu begi alaigarri.

Tira, bada, aitor dezagun

rentzat? Batez ere edozeinek ikusten duelarik, lasaturik, gure arragoaren magal zabalean hori eta higitzez gehiago ere sartzen dela egiazko sen sakona ezertarako ere kaltetu gabe: denak bat azaldu baitira, eta puntu horretan guztiz ados etorri, Errioxak paratu duen *Opor Fiskalen* aurkako errekurtsioa kementez arbuizatzeko orduan.

Eta hortaz, gure nortasunaren osagarri funtsezkoena —epizentrotako poltsikoan duena, alegia— salbu gelditzen da.

ASTEKO PERTSONAIK



Elena Etxalar
AEK-ko burua Nafarroan

Javier Markotegi Hezkuntza sailburuarekin elkarrizketatu nahi zutela eta, orain dela bost hilabete eskaere egin zuten erregistroan AEK eta IKako ordezkariak. Bigarren bat ere egin zuten, Hezkuntza Sailaren erantzun falta ikustean, eta kasualitatez, orain, hauteskunde kanpainaren erdian jaso dute baiezko erantzuna. Aste honetan bildu ziren, eta ordu t'erdiz helduen euskalduntzeak dituen arazoei buruz mintzatu ziren AEK eta IKako eta Hezkuntza Saileko ordezkariak. Baina ez ziren pozik atera AEK eta IKakoak. Elena Etxalar AEK-ko burua azaldu zuenez, «argi geratu zaigu gai honi ez diotela batere garrantzirik ematen, UPNk, gainera, ez du aurrerantzean planik egiteko asmorik». Egoera, beraz, lehen baino okerrago dago.



Inge Morath
Argazkilaria

Inge Morath argazkilaria austriarrak 1953a eta 1957a bitartean Espainian zehar ateratako argazkiak ikusgai dira Iruñean ekainaren 18ra arte, 'España, años 50' izenburupean. Magnum agentziako lehen emakumea izan zen Inge Morath eta mundu osoko jendea izan da bere argazkietako protagonista. Margolari eta idazlea izan zen hasieran, kazetaria gero, baina argazkigintzarekin topo egin zuenetik argazki kamera izan du lagunik minena. Artista honi «jendearen eta herrien arima harrapatzea» interesatzen zaio, Iruñean erakusketa aurkezten egon zenean esan zuen moduan. Horretarako, herrialde batera joan aurretik bertako hizkuntza ikasi, liburu eta olerkiak irakurri eta jendea ezagutzen saiatzen da.

AHAZTU GABE!

LEHIAKETA



'Ximenez de Rada' Institutuarekin 150. urteurrena dela eta, zerbait ekitaldi prestatzen ari dira bertan hilabete hauetarako. Horietako bat lehiaketak dira, hiru atera baitituzte: bi literatura lehiaketa, bat zentroko ikasleentzat eta beste irekia, eta urteurrena iragartzeko kartel edo logotipoarena bestea. Azken honetan parte hartzen dutenek ekainaren 16a baino lehenago aurkeztu behar dituzte lanak, baina partehartzaileak egun zentroan matrikulaturik daudenak edo ikasle ohiak soilik izan daitezke. Logotipo hoberenak 25.000 pezetako saria jasoko du, eta iragarpen kartel onenak, berriz, 50.000 pezetako saria. Beste bi lehiaketetan parte hartzen dutenek azaroaren 30a baino lehen aurkeztu behar dituzte bere lanak. Narrazioa edo poesia izan daitezke, gehienez sei orrikoak; zentroko ikasleentzako lehiaketan argumentuak zerikusia izan behar du Institutuarekin edo hezkuntza gaiarekin. Lehiaketa librean, berriz, edozein gaia aukera daiteke, hezkuntza gaiak gehiago baloratuko baidira ere.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.4

Egunero, asteleheneetik ostiralera, 'Zokobaitilu' goizeko 10.00etatik 11.00etara.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... 'Karakola segi hola' gazteendako saioa.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

KARRAPE IRRATIA FM 107.8

Asteazken zehar, 12.20etatik 12.35etara 'Gauza guztiak gainera' edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak...



Kaskante

IV. Artisau Feria bihar

KASKANTE

Hogeita hamar artisau izango dira bihar, larunbata, Kaskanteko IV. Artisau Ferialan, Euskal Herriko hainbat herritatik etortakoak gehienak. IV. edizio honetan antolatzailea den Kaskat taldeak hamar urte zituenetik sokagile izaniko Benito Otxoa omenduko du, Kaskantekoa bera.

Foruen Plaza izango da artisauen topalekua, eta egun osoan zehar, goizeko 10.30etatik arratsaldeko 8.30ak bitarte, zapatak, biolinak, makilak, sokak, zeramika, larrua edota txotxongiloak nola egiten diren ikusi ahal izango da. Halaber, gazta, ogia, taloa edo ezti naturala erosi ahal izango da, eta zura, larrua, zilarra, oihala edo harria nola lantzen den erakutsiko dute hainbat artisauk. Horien artean Otxoa bera, desagertzeaz dagoen lanbide baten azken ordezkarietakoa. Sokagile honek Novallas edo Tazonako kalamua erabiltzen zuen otarrak egiteko, baina urteen poderioz lihoa edo plastikoa nagusitu zen. Erabiltzen zuen tresneria murriztu eta oso zaharra zen, eta, bere lana non behar zuten, hara joaten zen Otxoa. Normalean, bezeroak paratzen zuen



Hogeita hamar artisau inguru egongo dira plazan.

materiala, eta artisauak lana. Nekazariak ziren ohizko bezeroak, baina makinak heldu zirenean akabo lana. Langilea artisau bihurtu zen orduan.

Artisau feria hau gero eta ospe handiagoa hartzen ari da urtetik urtera, eta aurten, kasu, otargintzari buruzko erakusketa ikusi ahal izango da Kultur Etxean, gaurtik igandera bitarte. Erakusketa hau Etnogintza taldeak antolatua da, eta gaztaina eta herritz zumitzezko otargintzaz antolaturiko erakusketa monografiko gisa aurkeztu da. Antzinako lanbide honetan erabilitako zenbait otar mota, lan-tresna eta materialen bidez, gure altxor kulturalaren arlo garrantzitsu honen ulermen eta ezaguera zabaldunahi ditu jendearen artean. Ehundik gora otar mota aurkezten ditu erakusketa honek, bakoitza bere argibide idatziekin, eta bideo eta diapositiben bidez lagunduta.

Bestalde, bihar larunbata, hilak 20, arratsaldeko bederatzietatik aurrera, Pasaiako (Gipuzkoa) Katakarak Trup taldeak 'Circaos' izeneko ikuskizuna aurkeztuko du Foruen Plazan. Kaskanteko gaiteroek larunbatean zehar alaituko dituzte bertaratuak.

Bera

Igandean egingen da Agerra taldeak antolaturiko bigarren mendi itzulia

JON ABRIL / BERA

Agerra Mendi Taldeak antolaturik, igande honetan egingen da Berako bigarren mendi itzulia. Goizeko zazpizetik zortzietara bitarte izanen da irteera, taldearen egoitzatik, 500 pezeta ordainduta. Ibilbidean, kontrolguneak egoteaz gain, jateko eta edateko guneak ere prestatu dituzte antolatzaileek.

Berako mendi itzuliaren lehen edizioa orain zortzi urte ospatu zen, artean Agerra mendi taldea sortu gabea zela. Ibilbidea berdina izanik, izena ere mantentzea erabaki dute antolatzaileek. «Hau izanen da elkarteak antolatzen duen lehen erronka, jendeak mendia ezagut dezan. Jendeak badaki mendia hor dela baina ez du ezagutzen, mendizaletasuna piztu egin behar zaie», adierazi du Xabier Zubietak.

Ibilbidean, lehen oztipoa Larretagaineke tontorra izango da, eta Luis Mari Apeztegia beratar



Mendi martxen garaia omen da hau.

mendizale zenari altxatutako oroitarriarekin topatuko dira mendigoizaleak. Lizuniagako lepoa pasatu ondoren, Larungo bidean goiti abiatuko da ibilbidea, kaxkotik ehun metrotara iraganez. Harrespila baten ondotik igaro ondoren, Zizkuitz

lepoan Pantxo Santesteban azkaindarraren eskulturak aurkituko dira. Yasolan jarraituko du ibilbidea, Usategietatik Ibarbingo bidea hartuz. Mandelakoa izango da igoko den azken maldada. Hortik, Herriko Etxeraino dena-beheiti izango da.

Arruta

Sei musika taldek diskoa aurkeztuko dute

DONIBANE-GARAZI

Kontzertu berezia izanen da heldu den maiatzaren 24an Arrutako ezkerparetan, gaueko 11etatik aurrera, bertan sei euskal talderen diskoen aurkezpena egingen baita. Egan, Izotz, Txakun, Guk eta Mister Saguak taldeek beren azken diskoa plazaratuko dute horrela herrixkan, eta Lau Behi talde donostiarraren estreinako plazaratzea izanen da.

Ekitaldia Irulegiko Irratia, Xiberoko Botza eta IZ disketxearen arteko lankidetzaren ondorioa da, lehendabiziko aldiz hiru erakundeak elkartu baitira horrelako zerbait esateko. Aipatu behar da, halaber, bi irratiek elkarrekin egiten duten lehen ekitaldia dela.

Egan taldea arras ezaguna da musika munduan, belaunaldi askoren lehen plaza taldea izan baita gipuzkoarra. Izotz ere plaza taldea dei liteke, eta Lau Behi-koek, akaso ezezagunenak izango direnek, *rythm and blues* egiten dute.

Kartzelako gaia

Juan Kruz Lakasta

Geneak

Gizateriaren historian badira hainbat misterio: Ama Birjinaren birjintasuna, Bazko Uharteko estatuak, Atlantida, ea zer dela eta dauden intsumitu preso gehiago Nafarroan Euskal Herriko beste edozein probintzian baino...

Jimenez del Osok ikerkuntza lan mardul eta emankorra egin du haietariko gehienenguan. Intsumitu nafarrena, baina, argitzeke utzi du. Normala da; izan ere, intsumitu nafarren misterioaren azalpena ez datza zientzi paranormaletan —pararuntetan, akaso?—, eta bai, aldiz, biologian. Nafarroan geneetan ageri da aferaren zergatia.

«Ez daukazu potrorik 'x' egiteko» esaten digutelarik, nafarrok 'x' egiten dugu beti, zuzen-zuzenean geneetatik datorrigun barne-suak beharturik. Espetxeko 240. ziegan gertatutako pasadizoak irakurlerik kaskagorrenari ulertaraziko dio arestian aipaturikoa.



'Labezomorro' Razkin Etxarriko intsumitua eta Balbar 'Txino' iruinsemea bizi dira bertan. Joan den egunean intsumitu preso ohi bati eginiko elkarrizketa bere baitan gordezten zuen egunkaria —intsumituko genuen ale bakarra, hain zuzen ere— eraman zuten txabolora. Bertan, Labezomorroak, txantxetan, «txiskero honekin egunkariari su emanen diot» esan zion Txinori. Segituan, iruindarrak esaldi majikoa bota zuen: «ez daukazu potrorik». Etxarriarrak, jakina, su eman zion, eta «nik ez dut itzailiko» gaineratu zuen. Txinok berriro ere zorioneko esaldia bota zuen: «Nik ere ez dut itzailiko. Ez daukazu erretzen uzteko behar adina potrorik». Eta horrela segitu zuten, dinamika amaitezin horretan murgildurik, egunkaria erabat kiskali eta kasik txabolo osoa erre zen arte. Gauzak horrela, «ez daukazu potrorik plantoa egiteko» esaten digutelarik, nola ez dugu egingen ba plantoa?

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

1848an, galdutako gerraren ordainketa gisa, Mexikok 1.370.110 km²-ko lurraldea —65 aldiz Euskal Herria— eman behar izan zion orduan 65 urte eskas zituen Estatu Batuak nazio berriari. Texastik mendebalera-ko alderdi zabal askoan indioak baino ez zirela bizi esatea ez da gehiegizkoa, lurraldea erabat ezezaguna eta latza baitzen ekialde osoa menperatuta zuten kolonoendako. Meategien aberastasunaz eta lurraldeen zabalera leienda azkar asko zabaldu zen bertara sartzen ausartu ziren lehendabizikoen ahotik, eta Europako bazter askotan amestutako paradisu bihurtu zen mendebalde hori, aberats izateko aukera ezin aproposagoa.

Euskal Herriko azken bazter-rreraino heldu zen deia, eta beste herrietan bezala, harantz abiatu ziren denendako nahikoa ematen ez zuten baserrietako seme franko: Kaliforniako Santa Barbarako merkataritza garrantzitsuenetakoa zen Jose Maria Andonaegi 1849an, eta Ulpiano Indart eta bere sema konterriko diruzainak ziren 1854an, hauteskundeetan aukeratuak. Gaur egun etxe garesti eta zentro turistikoak duen herri honen estreinako garaietan, mendebaldeko beste askotan bezala, ezin ahantzizko lana egin zuten mugaz bi aldeetako nafarrek. 1877an Urepeletik joandako Jose Borderrek lehen euskal hotela sortu zuen 1899an. Beraien ondorengo heldu ziren Baztanzuri, Etxarren, Etxeleku, Antxordoki, Bidauzurraga, Lizoain, Armendariz, Ganboa, Karrikaburu... konterrietako historia liburutetan usu azaltzen diren izenak. Egun ehun mila inguru dira EEBBetako estatu guztietan, data zehatzik eman ezin bada ere. 1990ean Estatu Batuetan egin zen errolda nagusian, jatorria zehazterakoan, 50.000 inguruk euskaldunak zirela aipatzen zuten.

Bertara egindako bidaia batean izeki zitzaion Joseba Etxarri komunitate honi buruz zuten ezagutza urria sakontzeko grina. «Joan nintzenezan banekien han zeudela Euskal Herriko joandako emigranteak», azaldu du kazetari donostiarrak, «baina izugarritzko sorpresa hartu nuen ikusi nuenean bazirela han sortutako euskaldunak, euskal kulturarekin harremana gordetzen zutenak». Horrek astindu zuen bere kazetari sena, eta zortzi urtetan zehar estatu eta herri anitzetan egon da bisitari, euskal amerikar hauen bizitza eta bizi-modua ezagutzen. «Gero eta gehiago konbentzitu dut nere burua merezi zuela gai honi buruz zerbait egitea». Artxibo, lekukotasun zuzenak eta han-hemenka dauden arrastoen bidez zenbait lurraldetan indartsu diren komunitate hauen historia eta gaur egungo egoerari buruzko ikerketa erraz irakurtzekoa eta edo-

Euskaldunen Amerika' liburua aurkeztu berri du Sunbillan Joseba Etxarri kazetari donostiarrak, eta luze gabe Elizondon egingo da antzeko ekitaldia. Itsasoz bestaldera etorkizun bila joandako nafar askoren historia biltzen da liburuan, bi aldeetako nafarrak izan baitziren —bizkaitarrekin batera—, abenturari gogotsuen lotu zirenak. Ehun mila inguru dira egun, zortzigarren lurraldea osatzeko adina, hain zuzen.

Zortzigarren lurraldea

norendako moldatua egin du Etxarri.


LEHENAK NAFARRAK ZIREN

Hara joandako lehen euskaldunak nafarrak ziren, mugaz bi aldeetako nafarrak, eta eremu oso euskaldunak ziren gehien jatorria: Baigorri, Donibane-Garazi, Baztan, Bortziriak, Malerreka, Erroibar, Aezkoa... Ondoren heldu ziren bizkaitarrak, eta gipuzkoar eta arabarrik apenas joan ziren. Eutsi egin zioten bertan euskarari ha-

Askotan esan da beste komunitatekoek baino gehiago mantendu dutela euskaldunek euren kultura, baina ez da ahaztu behar ez direla emigranteak, amerikarrak baizik».

tik, eta Boisen, kasu, komunitate oso zaharra izanik, artzain gutxi gelditzen da euskaldunen artean. Buffalon (Oregon), ordea, asko dira».

Urteak joan, ezkontzak eta seme-alabak etorri, ingelesa sartu zen euskararen ondoan, eta komunitateak ere nahasiz joan ziren. Gero eta berdintasun handiagoa izan zen belaunaldi berrien ezaugarria, neurri handian 1970ean sortu zen North American Basque Organizations-ek (NABO)—euskal zentro guztiak



Euskalduntasunā aldarrikatzen dute euskal amerikarrek.

JOSEBA ETXARRI

rremanetarako bide gisa, eta baita indartu ere, badirelako kasuak Euskal Herriko erdalduen joan eta han euskaldunak zirenekoak. Hasierako ondorengo heldu ziren inguru bereko senideak, ezagunak, eta zenbait tokitan komunitate osoak eratu ziren, gaur egun oraindik antzeman daitezkeenak. Horrela, Kalifornian gehienak baxenabartarren ondorengoak

Badira oraindik euskaldunen arrastoak lurralde oso ezezagunetan, hala nola Arizona, New Mexico, Colorado, Utah, Oregon, Montana edo Washingtonen».

dira, Nevadan Bortziritakoak, Boisen (Idaho) eta Oregonen bizkaitarrak...

Artzaintza izan zen hastehastetik jardura ohizkoena, behintzat komunitate indartsuenak sortu ziren lurraldeetan —ia mendebalde osoan—, baina arlo honetan topikoak baztertu beharrekoak direla uste du Etxarri. «Ipar Amerika anitza da oso, eta, ondorioz, euskaldunak ere ikaragarri anitzak dira han. New Yorkeko edo Floridako euskaldunak desberdinak dira oso elkarrengandik, hastapenak ere oso desberdinak izan zituztelako hara joandakoek. Mendebalde osoan hasierak oso lotuak izan dira artzaintzarekin, baina Floridako jardura pilota izan da, eta New Yorkekoak beste zereginetan aritu dira. Belaunaldiak igaro ahala, gainera, gero eta urrunago daude hasiera haieta-

batu zituen erakundeak— eraginda. Ordura arte bakan samar zeuden familiak elkarrekin biltzen hasi ziren eta Euskal Herriko ezagutza zabaldu zen. Etxarri dioenez, aldaketa garrantzitsua ekarri zuen NABOk komunitate hauen harreman arlorra, ordurarte egindako ahaleginek ez baitzuten erdietsi denen arteko lotura iraunkorra.

Ipar Amerika anitza da, eta ondorioz euskaldunak ere ikaragarri anitzak dira. New Yorkeko edo Floridako euskaldunak desberdinak dira oso elkarrengandik».



AMERIKARRAK ETA EUSKALDUNAK Ez da erraza, baina, lehenengoak joan

zirenetik 150 urte igaro direlarik, ondorengoek baita iraun duen euskalduntasuna zertan den azaltzea. «Haiek amerikarrak dira, ezereen aurretik», azpimarratu du Etxarri, «baina ondoan badute euskal sentimendu sakon bat, belaunaldi belaunaldi eutsi diotena. Oso fenomeno aipagarria da, beste inon ez baita iraun han bezain fierki. Kultura eta euskarekiko atxikimendu ikaragarria izan dute han». Abegia eskaini dien lurraldeak izan bide zuten eragina jatorritzko zenbait alderditan galdu zena atzerrian mantendu ahal izateko. Estatu Batuetara joandako gutxiengo gehienek izan dute euren kultura ez ahazteko jarrera, eta horregatik ez da harrigarria nabarmen-tzea—euskaldunak jaso dituzten Amerikako beste herrietan (Argentina, Txile, Mexiko) ez bezala— Euskal Herria bat dela bertan, Euskal Herrian bertan baino indartsuago gainera. «Han 'Zazpiak-Bat' lema denek onartua da, naturaltasun osoz. Nafar, baxenafar, zuberotar, bizkaitar, denak baturik daude sentimendu honen inguruan». Horren lekuko izan ziren joan den mendearen hondarrean bertan sortu ziren euskara hutsezko bi kazetak, gurean ere oso berandu arte erdietsi ez zena. 'Batasun' honen beste ezaugarria da oso ohizkoak izan direla euskaldunek euren arteko ezkontzak, beste komunitateetan baino ohizkoak alegia.

Badira, horrela, hara joandakoen bigarren edo hirugarren belaunaldiko euskaldunak, badira diru asko eta estima handia egindakoak eta hilotia Euskal Herrian nahi dutenak, badira botere handia eskuratutakoak —'Los Angeles Times' komunikabide kateko burua, kasu— baina euskalduntasun hori ahaztu ez dutenak. «Askotan esan da», dio Etxarri, «beste komunitatekoek baino gehiago mantendu dutela euskaldunek beren jatorri kulturala, baina ez da ahaztu behar ez direla emigranteak, amerikanoak baizik. Bi osagaiak indartsu daude erroturik jendearen baitan».

EGUN EHUN MILA INGURU Ez dago daturik joan ziren guztiei buruz, baina askok eta askok nahiago izan zuten betiko Euskal Herria itzuli bertan zuten etorkizun zalantzazkoari hozka egin baino, hasieran gogorak izan baitziren oso. Euskaldunen marka hau ere, antza.

«Edonora joanik ere, beti izan dugu herrira itzultzeko joera. Orobat, kontuan hartu behar da artzaintza bizimodu berezia zela bertan laketzeko: hilabeteak eta urteak egon beharra zegoen baxerrik ardiekin, inor ikusi gabe, eta askok ezkontzeko aukerarik ez zuten izan. Dirua azkar egin zuten gehienak itzuli ziren, eta



ezkondu eta gelditu zirenek lan handiz atera zuten familia aurrera. Ondorengoek izan dute bizitzan aurrera egiteko aukera ona».

Orain aurkeztutako liburu honi beste batzuek jarraituko diote, Etxarrik aspaldian inork egin ez duen lana egin nahi baitu bertan: euskal amerikarren historia eta lekukotasuna biltzea alegia. Horren inguruan egin den lan garrantzitsuena 1970ean argitaratu zuten Jon Bilbaok eta Bill Douglasek, 'Amerikanoak' liburu lodiarekin, baina hortik aurrera ez da horrelakoen parekorik karrikaratu. Lana, gainera, lehenbailehen egin behar dela ohartarazten du kazetari donostiarrak. «Komunitate indartsuenei buruz argitaratu dira artikulu asko, baina badira euskaldunen arrastoak eduki dituzten beste lurralde oso gutxi ezagunak, hala nola Arizona, New Mexico, Colorado, Utah, Oregon, Montana edo Washington. Hor gelditzen dira oraindik euskaldunak, baina zaharrak, eta horiek hiltzean euskalduntasuna ez da gauza bera izango, hizkuntza galtzen denean funtsezko zerbait galtzen delako». Lana Euskal Herrirako ezezik, Amerikako euskaldunendako ere egin behar dela azpimarratu du kazetariak, «haiek ere ez dutelako beren historiaren berri izan».

Dibulgazio lan hau proiektu handia izanik, argitaletxeen babesa eta interesari derrigorrezkoa deritzo aurrera egin ahal izateko, baina baditu dagoeneko datu bilketa oparoak eginak, eta aurrera egiteko ilusioa, zakuka. «Garrantzitsua izango da denok ezagut dezagun Euskal Herriko adar amerikano hura».



Goian, ezkerrean, Flagstaff-eko (Arizona) Frank Auza Nafarra. 89 urte dituela, bera da oraindik euskaraz mintzatzen den azken herritarra. Bertara heldu zen lehenbizikoetako izan zen. Eskuinean, Simon 'Barbon' Harriet Wyoming-eko Buffalo hiriko Hotel Idlewild-en aurrean. Aita eta ama arnegiarrak, oso-osorik eutsi dio gurasoen hizkuntzari. Behean, erdian, Jim Zatika nafarraren Jordan Valley-ko (Oregon) gasolindegiko kamioi bat, eta behean, Jesus Pedroarena garraldarra Gardnervilleko euskal jatetxean, bere ezkerrean Frances emaztea eta eskuinean Elvira Zeno mutrikuarra dituela. JOSEBA ETXARRI



Maltzur lanposturako oposaketak

Galdera: Heginsk Kahn-en arima ehortzi gabekoa naiz, badakizu, mongoliarrak mundua oinperatzera eraman zituen buruzagiaren arima. Seiehun urtetan behin gorpuzten naiz. Orhipean, Euskal Herrian gorpuzteko oposizio-konkurtzuan nere merituak azaldu ditut eta hamaseigarrena naiz zerrendan. Batz beste nire aitzinean Drakula, Nerón, Cain, Bostongo lepo-bihurritzaile, Fredy eta, ditut. Nire gibelean beste berrehun bat lagun ditut. Batz beste azkonak sortu zituena, geziak sortu zituena, baleztak sortu zituena, baraxuri-saldak sortu zituena, salaketa piramidalak sortu zituena, nortasun-testak sortu zituena eta. Epaimahain egotekoak dira: Presidente Txerrentx bera, gero Tartalo, Josetxu El Vasco eta nagikeria birusa sortu zuen deabrutxoa. Nik ez dakit zer duen lurralde horrek, baina gorago esan bezala, ehortzi gabekoak eta bergorputzekoak garen gaixto guziok hortxe atera nahi dugu aterperen bat. Gai gehienak munduko edozein oposaketan ager dakizkigukeenatarikoak dira.

'Nola pozoindu 500.000 biztanletik gorako hiriak', 'Napal lehegailuaren abantailak eta desabantailak', 'Euri radioaktiboaren erabilpen ez mugatua' eta. Badira bi gai, ohiko bibliografian agertzen ez direnak. 'Nafarroako belar-gaixtoak eta beren eragina Foru-Hobekuntzan'. 'Sexua eta Sanferminetako entzierroak'.

Emanen zenidake horri buruzko informazio-iturririk? Oposiziokiderik gehienak Bilboko akademia batera joan dira. Zerbitzu hau merkeagoa denez gero, zuregana jo dut.

Erantzuna: Egia esan, ez dakit zer erantzun. Poztekoa da Orhipeko Maltzur-Lanposturako oposaketarik egitea, baina egitan ez dakit nondik hasi begiratzeko. Ongi etorri, munduko maltzur horiek, gaueko animaliak, gure herrira. Etxean bezala hemen kalean.



«Nik ez dakit zer duen lurralde horrek, baina ehortzi gabekoak eta bergorputzekoak garen gaixto guziok hortxe atera nahi dugu aterperen bat.»

Galdera: Taconerako ahateko itsusia naiz. Nire anaia-arreben aldean, askoz ere baldarragoa naiz, beltzagoa, ibilera traketsagoa, ibiltzea lortzen dudanean bederen. Nire bizkarretik, nire lepotik, nire mokotik, nire hegoetatik parre egiten dute, etengabe eta gupidarik gabe. Ahate elkarteetatik bota naute eta bakar-bakarrik bizi naiz. Eskeintzen dizkidaten eredu sexualak ere ez ditut gogoko. Harro-harro dabilzta ahateak, munduko elementu guztiak menperatzen dituen animalia bakarrak baitira. Bai lurra bai ura bai airea. Nik uste dut zerrenda horretan sua falta dela. Niri gorpuztekoak lakat zaizkit, lepo luzeagokoak, eta hiltzean baino kantatzen ez dakitenak. Ez ahate hitzontzi hauek. Zer egin nezake?

Erantzuna: Zure kasua tipiko-tipikoa da. Baldintza guztiak betetzen dituzu zisne



'Grandville-n iruditan euskal errefrauak' liburuko ilustrazioa.

«Ahateak harro-harro dabilzala iruditzen zaizu, baina, zinez, ahateak ez dira munduko animaliarik harroputzenak.»

eder bat izan ahal izateko. Baietz zisne bat izan, lepo luzeko zisne zuri-beltz bat. Oraindik gazte xamarra zara, eta hari eta zure gorputza erabat kozkortu artio, ez kezatu. Gerokoak gero, zisne ederra, ahateen artean bizi zaren hori.

Ahateak harro-harro dabilzala iruditzen zaizu, baina, zinez, ahateak ez dira munduko animaliarik harroputzenak.

Klasiko bitxi arront klasiko

Joxemiel Bidador

Dantza euskal literaturan (III)

Mogel, Joatxin Lizarraga, Iztueta eta Madariaga ere aritu ziren luze 'herrietako olgetaz'



Juan Antonio Mogel Urkizak ere zer edo zer berri bazioskun dantzari buruz. Sortzez eibartarra markinarra izatez Xemeingo erretorea zenak ondu *Confesio ta comunioco sacramentuen gañean eracasteac edo cembat gauzac lagundu behar die confesio ta comunioari ondo eguiñac izateco* idazkia 1800. urtean Iruñean agertu zen. Lan hau askoz ere handiagoa omen zen eskuizkribu baten zatia baino ez dateke: *Catecismo bascongado, cristiñau eracaste euscalduna*. Liburuak elkarriketa itxura aurkezten du, galdera eta erantzunen bidez. VIII. erakastearen bukaeran, bai arto xuriketen ohitura zaharra nola dantzaren aipamenak badakartzat saminki galarazteko.

Dantzaren gaia ukitzen duen beste idazlea gure bihotzekoa den Joatxin Lizarraga Iragi dugu, Eguesibarreko Elkanoko semea, eta aita, Migelena etxean 1748. urtean sortu zena. Bere jarrera, On Satrustegik aspaldi *Fóntes Lingua Vasconum* aldizkarian argitara eramandako sermoi eder batetan agertzen du Elkanokoak, 'Sermo in festo rosarii' predikuan alegia. Honetan, Elkanoko mezeteetan bertan predikatua, erdiko jarrera mantentzen du, dantza berez pekatua etzela esaten zutenen artean, eta bi sexuen artekoak zalantzakorrek suertatzen zaizkien taldean. 'Eta guizónqui ta emastéqui danzagóiec errietán Patrono Sanduen jaietan nondie etorri diré? Norc paratu? Jangoicoac, ez; ceruco aingueruec ere ez. Norc bada? Aditzen nago diotena cembraitec berén colcoan. Eztaquit cierto, baña sospechatzen dút. Aguintzendéna dá pleituguisabát danzagenerogorregain: batzuéc diótelá nolanaí itsuquiro eztéla becaturic ortan; bercebatzuéc guziá becátu. Ayec lazóegui, erchiegui ebéc'.

Bestelako zioak ziren Juan Ignazio Iztueta Etxeberria kezkatzen zutenak. Honek oso famatua da Iztueta idazkitxo, famatuegia apika. Zaldibiakoak Ignacio Ramón Barojaren moldiztegan atera zuen argitara 1824. urtean lehenbiziko aldizkoz dantza giputzaren katezismoa: *Gipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia, beren soñu zar, eta itz neurtu edo ber-soaquin baita berak ongui dantzatzeco irakaste edo instrukzioak ere*. Bi urte beranduxeago, lan honen epigonoa moldeetatik jalgiazten du, paper musika bilduma alegia, izenburu honen pean: *Euscaldun anciña anciñaco ta are lendabizico etorquien dantza on iritzi pozcarri*

gaitzic gabecoén soñu gogoangarriac beren itz neurtu edo versoaquin.

Zenbait urte lehentxeago, 1819.ean espreski, beste lan ospetsu bat agertua izan zen jada. Bartolome Madariaga Garate karmeldarra, Bartolome de Santa Teresa edo Frai Bartolotzat hagitz ezagunagoa zeneren Iruñean argiratu *Euscal errijetaco izeneko lan saila agerian gertatzen den legez*. 1826. urtean, Lécluse izeneko frantses jakintsuak argitaratzen du bere *Manuel de la langue basque*. Bere sarreran aspalditik gertatzen ari zen mugimendu baten berri ematen du: Plautoren *Poenuculus* komediaren 5. aktoaren lehendabiziko eskenako 16 lerro, eta komediaren argudioaren arabera, punikeraz omen daude, edo ikerlarietako ezezaguna zen hizkuntza batetan behin behin. Azken ikerketen arabera, latinezko bertsoek besteen itzulpen zuzena ematen zuten, eta hala izanik, hebraieraren bitartez azaltzen saiatu ziren. Ikerlari zenbait ez zitzaion ideia ona iduritu, eta euskararen bitartez azaldu nahi izan zuten, haien artean Lécluse zegoelarik. Honek Iztuetari eskatu zion euskararekin pareka zezala, beste ikerlari batek gauza bera Frai Bartolome eskatu zueno. Honek, besteak bezala, bere interpretazioa egin zuen. Bi informe hauek Frantziako Tolosan bildu zen batzar batek epaitu zituen, eta erabaki egin zen Bartolomerena ez zuela egiantzik.

Orduan, eta erabaki honekin asaldaturik, ez oso ados nonbait, Etxebarrikoak bere lehenengo eraso burutu zuen lau gutunetan. Hautan, Plautoren testuaz ihardun zen gehienbat, baina geroago ere Lécluseren gramatika gaitzetsi zuen. Lau eskutitzak *Plauto bascongado* izenburuztat duen liburuan argitratzen ditu 1828. urtean Juan Jose Mogelen idazkian.

Hirurgarren idazkian Iztuetari trufa egiten dio: 'Yo convengo que el señor Iztueta tratará acaso por su obra de bailes sumisos respetos de aquella gente que tiene vocación para la distinguida carrera de danzantes, cómicos y mimos. Y no espere el autor por su obra más respetos del religioso y honesto país vascongado. Busque vd. sabiduría en ella. Yo no la hallo'.



■ Iruñeko Hiria Xake Torneo irekiko zortzigarren ihardunaldiko partida, 1995eko urtarrilaren 4an jokatu. Mario Gomez, 2.465 ELOkoa (Bizkaia)-Francisco Javier Otxoa, 2.425 ELOkoa (Bizkaia). 1.e4,c5; 2.Zf3,Zc6; 3.d4,d4; 4.Zd4,Zf6; 5.Zc3,e5; 6.dZ-b5,d6; 7.Ag5,a6; 8.Za3,b5; 9.Zd5,Ae7; 10.Af6, Af6; 11.c3,Gb8; 12.Zc2,a5; 13.a4,a4; 14.cZ-e3,0-0; 15.Da4,Ze7; 16.Zf6 xa. Zuloa irekitzeko aukera. Errege txuria ahulduta irten da. 16...f6; 17.0-0-0. Alde horretan txurien hutsuneak nabarmenak dira. 17...Db6; 18.Da3, Gd8; 19.Gd2,De6; 20. Ac4. Ezin zuten 'a5-eko' peoia jan. 20...Ae6; 21.Ae6,e6; 22.hG-d1,Gb6; 23.Da2,Ef7; 24.Zc4. Ikus koadroa. Maisuen jokaldia helduko da.

Dama txuria, itxita, gaizki kokatuta dago. Beltzek 'c4' laukia atxekiko balute... Ez, ez da erraza beltzen aukera asmatzea. 24...Zc8; 25.Zb6,Zb6; 26.Ge2,a4; 27.g3,Db5; 28.dG-e1,Zc4. Maniobra osatu da. Mugimendu askatasun gehiago dute beltzek. Baina nola atera etekina? 29.f4,Ee7; 30.Gf2,Gb8; 31.f5,f5; 32.f5,d5; 33.g4,e4; 34.h4,Gg8. Zer egin? Gg2? Ez, Ze3 jokaldiagatik. Gg1? Ze3, berriz ere. 35.g5,g5; 36.f6 xa,Ef7; 37.g5,Gg5; 38.Gh1,h5; 39.fG-h2,Db6. Txuriak galduta daude. 40.Ge1,Gg1; 41.hg-e2,Ge1 xa; 42.Ge1,Df2; 43.Gd1,De3 xa; 44.Eb1,De2; 45.Ec1,Ze3; 46.Da4,Dd1 xa. Piezen trukearen ondoren, peoi beltzak atzemanezina izanzen dira. Garaipena burutu da.



LUTXI FOURCADE / AINIZE

Urtero, maiatzaren erditsuan sukarra sentitzen da Ipar Euskal Herriko etxalde anitzetan. Zortzi hilabete zelai goxoetan iragan ondoren, artaldeek mendiko bidea hartu behar dute. Behi eta zaldiekin, mendiko pentzeetan ibiliko dira, belar ona atzemateko asmoz. Etxaldek kanpo izanen direno, etxeko bazka gutiago janen dute, negua ongi iragan dadin, eta laborariak etxaldeko la-saitasunaz baliatuko dira udako lanak burutzeko, ardi gehienak urrian jaitsiko baitira.

Egun batetik bestera, etxaldeak artaldez ia osoki husten dira eta benetako antolakuntza beharrezkoa da egun berezi hau nahiz artzainen mendiko egonaldia prestatzeko. Etxalde bakoitzak bere errezeta du eguna prestatzeko, etxeko ohiturari jarraituz kasu gehienetan baina kontutan hartuz mendiaren egonaldia nola iraganen den.

Hots, batzuk jarraituko dira ardiak jezten eta gasnak egiten mendian, bestelako gustua omen duelako. Beste artzain batzuk, aldiz, agortu diren ardiak baizik ez dituzte eramaten, beraien bildotsekin. Etxaldean arbera, ardi batzuek ile motz-motzak izanen dituzte, eta beste batzuek luzea atxikiko dute zenbait hilabeterentzat. Eztabaida luzeak ere izanen dituzte jakiteko noiz jaitsi beharko den artaldea, mendiko belarra ez baita etxekoa bezain aberatsa eta ardiek indarra hartu beharko baitute negua etorri baino lehen.

Ainizeko Kantonia eta Fordelesa etxeetan antzeko ikara zuten joan den larunbatean, ardiak Iratiko kaskora eraman behar baitzituzten. Zenbait egun lehenago etxeko nagusia bortura joan zen, etxola eta bazka hurbiletik ikusteko. Kontent jaitsi zen menditik, ikusirik zegoen belar gizenarekin bere ardiak ontsa izanen direla. Egia erraiteko ez dira gehiago bere ardiak, etxeko alabak segida hartu baitzuen duela urte pare bat. Alabaina, bortuko eguna sakratua da berarentzat eta antolakuntza gehienak berak zaindu nahi ditu.

Aurtengo euri txarrarengatik, ardiak arditegian atxiki zituen bezperan. «Errazkiago ibiliko dira bihar goizean, bidea luzea izanen baita». Zeren ohiturari jarraituz ardiak oinez joanen dira mendira, gaurregun artalde gehienak kamioiean igotzen badira ere. Erretreta hartu zuenean hitz emanarazi zion alabari segituko zuela ardiak oinez eramatea ahal bezain luzaz, kamionak ez baititu sobera begi onez ikusten. Batzuek diote ardiek ez dutela aise jasaten bidea eta esnea galtzen dutela, baina ez du kasurik ematen aholku horiei. Zernahi gisaz, ekonomia garrantzitsua egiten dute oinez joanez, kamioiak erabiltzea garesti ateratzen baita.



Ardiak Iratiko kaskorat, joan den asteburuan.

LUTXI FOURCADE

Maiatza etortzen denean, Euskal Herriko artzain gehienak zainetan ditugu. Ez bakarrik artzainak, baita artaldeek jabeak ere, urteko mugimendu handiena prestatu behar baitute. Maiatzaren lehenetik hilabete bukaera arte, milaka ardi mendiko bidea hartuko dute bertan egoteko zenbait hilabete. Euriarekin edo eguzkiarekin, artzainak mendirantz abian dira artaldeekin, bazka ona atzemateko esperantzarekin.

Ardiak eta artzainak mendirat

MENDI ETA ARDIEN BESTA

«Lagunak izanen dituguno artaldea laguntzeko, oinez jarraituko gara», argiki zioen etxeko nagusiak. Hots, laguntzaileak aurkitzea da zailena, 'artzaingai' gehiago behar baitira egun horretan 400 ardi ongi zaintzeko. Nahiz eta mendiko bidea ezagutzen duten aspalditik, hala ere bidegurutze guztiak zaindu

Akigarria izan arren, bidea luzea baita Anuzetik Iratiko kaskoraino, ardiak mendira eramatea urteko besta xoragarria da parte-hartzaile guztientzat.

behar dira, artaldea aitzinarazi behar da, batzuetan alferretan egoten baita bide erdian jateko edo itzalpean aterbetzeko, kasu berezia ere egin behar da auto eta kamioiei bide handitik pasatzen denean.


Akigarria izan arren, bidea luzea baita Ainizetik Iratiko kaskoraino, hala ere ardiak mendira eramatea urteko besta xoragarria da parte-hartzaile guztientzat eta bide bazterrean diren plazer guztiek nekadura laster ahanzartzen dituzte. Bide lasaiak erabiliz, bazter ederrak ikusteko parada da ardiak lasaiki ibiltzen direnean eta eguna iratzartzen denean.

Nola ez aipa, halaber, goizeko 4etarik herrietan agertzen diren jendeak, erdi lokaturik izan arren artaldea eta gaueko artzainak agurtu nahi dituztenak.

Gauzak ongi iragaten dire-

nean, bederatzi ordu beranduago artaldea iristen da mendian eta ardiak pausatuko diren bitartean, artzainek nasaiki janen dute supazter ondoan. Baina aroa ez zuten lagun aurten Ainizeko artzainek, eta ez dira bururaino iritsi gauean erori zen elurrarengatik. Hala ere ardiak mendian utzi dituzte usaiako tokira joanen baitira elurra urtu bezain laster.

Batzuek diote ardiek ez dutela aise jasaten bidea eta esnea ere galtzen dutela, baina hor ibiltzen den artzainak ez du kasurik ematen aholku horiei.



Joareak, zintzilik prest.

LUTXI FOURCADE

Ardien apaintze ederrak urteko ateraldia egiteko

L.F. / AINIZE

Mendira joaten den eguna prestatzeko asmoz, ardiak prestatu behar dituzte artzainek. Artaldea berezi beharko dute, baztertuz oraino jezten diren ardiak eta maingu direnak. Horiek beranduago joanen dira mendira eta aldi honetan kamioia erabiliko dute Kantoniakoek. Mendira joanen diren ardiak berezi ondoren, tindatuko dituzte etxeko marka jarritz. Horrela, Ainizeko ardiak erraz ezagutuko dira Iratiko kaskoan izanen direnean marka urdin eta gorriari esker. «Urdin, xuri eta gorria, ez direa ederrak gure koloreak?», zioten irriñoarekin.

Ardiak tindatzeaz gain, artaldeko abere ederrenak hautatu beharko dituzte artalde aitzinkari izateko joare berezi batzuei esker. Joareen doinuak ardiaren marrekin nahasten direnean, mendira igotzen den artaldea urrundik entzuten da, ahantzi gabé txakurraren azantza orruaz txanpaz ari denean ardiaren aitzinarazteko. Alta, bidea hartu baino lehen joare jartzeak ardi batzuei ez du ezer ikustekorik folklorismo huts batekin edo arrabotsen gustu batekin. Joarea daramatan ardiak gidarizat hartuko dituzte beste ardiek mendira iristeko. «Azkarrenak hautatzen ditut, bidea errekiago eginen dutenak», adierazi zuenez, bere errezetaren sekretua eman gabe, aitortuz hala ere adarrek garrantzia zutela bere hautua egiteko.

Kantoinako jabeak bere joareak zaintzen ditu altxorra bezala eta pare bat ikusten ahal da etxeko egongelan. Horiek ez ditu gehiago baliatzen mendira joateko baina baliatzen ditu erakusteko doinu ederra Maddalen bilobari. Mendira joateko baliatzen dituenak bihitegian atxikitzen ditu, zintzilik. Urtean bi aldiz ateratzen ditu, mendira joateko eta artaldea jaisteko udazkenean.

«Ez ahantzi, hamalau luze eta zazpi lodi direla», azpimarratu zuen goizean goizik lehen bulnbak entzuten zirenean bidean. Hots, mendian iritsi bezain laster, joare horiek kendu zizkieten ardiei. Joare pizu eta arrabostu horiek jaitsi zituzten eta beste joare batzuk ibiliko dituzte, arinagoak, mendi lurretan urria arte. Lepoko uztaiak ere desberdinak dira: bidekoak gaztain egurrarekin eginak, eta besteak berriagoak, plastikoa sartu baita artzain mundu horretan ere. Hala ere, joareen doinua lehen bezalakoa da eta ibiltzen baldin bazara xoko horretarik, euria edo eguzkiarekin, egunez ala gauez, aro eder edo lanbroarekin, ez da dudarik Kantoinako joareak entzuten dituzela.

«Idazleagoa sentitzen dut neure burua»

EDURNE ELIZONDO / IRUÑEA

Beste askok bezala, txikitik du Xabier Diaz Esartek idazteko zaletasuna. Iruindarra, Udal Ikastolako irakaslea eta idazlea, orain dela gutxi ikusi du argia bere lehen liburak, nahiz eta hamalau urte luze daraman letren munduan murgildua. 'Sei haur-komedia, a zer nolako komeria!' haurrentzako antzerki liburua da eta Nafarroako Gobernuaren laguntzaz kaleratu du. Bertan, azken hamar urteetan

saria, hobeki erranda, Sanchez-Ostizek eta nik neuk irabazi genuen batera. Orduan ere nire lana argitaratzeko aukera izan nuen baina ezetz erran nuen.

EGUKARIA.— Zergatik ez zenuen zure lehen eleberria argitaratu nahi izan?

DIAZ ESARTE.— Egia erran, lan autobiografikoa zen hura eta lotsatu egin nintzen, erabat beldurtuta nengoen. 'Gracia que esperamos obtener' du izena eta Iruñetik Zarautz aldera autobusez doan maisu

nahiko barrokoa da baita nire literatur ereduak ere, Hego Amerikako idazleak. Eleberri motzak euskaraz idazten saiatu naiz baina oso zaila gertatu zait, erdararen kodeak errepikatzen saiatzen nintzelako. Ez nintzen konturatzen hizkuntza eredu ezberdinak direla euskara eta erdara.

EGUNKARIA.— 'Sei haur komedia, a zer nolako komeria!' euskaraz idatzi duzu. Zailtasunak gaititu al dituzu?

DIAZ ESARTE.— Egia erran, erraza izan da niretzat, hiz-


du idazten dudana, ahalik eta hizkuntzarik ulergarriena lortzeko asmoz. Horretaz gain, egun nahiko pobretua dagoen hizkuntza azaltzen saiatu naiz, atsotitzak, esamoldeak eta bestelakoak sartuz. Haurrek gutxitan erabiltzen dituzte halakoak, eta, nire ustez, ezagutu beharko lituzkete. Liburuan bildutako gidoiak ere euskara ikasten ari direnentzat oso baliagarriak izan daitezkeela uste dut, ez baitira testu zailak.

EGUNKARIA.— Lehen liburua kaleratu ondoren, seriotasun handiagoz ekingo al diozu hemendik aurrera idazteari?

DIAZ ESARTE.— Bai, orain urte t'ardi hartu nuen erabaki hori eta horri eusten saiatzen ari

Xabier Diaz Esarte

IDAZLEA




«Euskaraz idatzi ahal izateko eremu berria aurkitu dut ipuin eta antzerkigintzan».

SOSLATA

Laster bigarren lana kalean

Xabier Diaz Esarte Iruñean jaio zen eta bertako Udal Ikastolan irakasle da aspaldidanik. Eleberri, ipuin eta antzerki idazlea, bere ikasleekin batera taularatu ditu bere lanak eta, askotan, bere istorioetako protagonista izan dira haurrak. 'Sei haur komedia, a zer nolako komeria!' idatzi ondoren, aurki Nafarroako Gobernuak bere bigarren lana kaleratu du, ikastetxeetan erabiltzeko eskuliburua. Egunkarietan agertzen diren iragarriak oinarritzat hartuz, hizkuntza lantzeko proiektua garatu du Xabier Diaz Esartek. Idazle lana, beraz, seriotasun osoz hartu du iruindarrak eta etxean pilaturik dituen idazlan guztiek, agian, laster ikusiko dute argia.



OSKAR MONTERO

idatzi dituen antzerki gidoietariko sei jaso ditu Xabier Diaz Esartek. Etxean, oraindik, beste asko ditu gordeta, argia noiz ikusiko duten zain.

EGUNKARIA.— 'Sei haur-komedia, a zer nolako komeria!' argitaratu duzun lehen liburua da, baina ez, ordea, idatzi duzun lehen lana. Zeintzuk izan ziren zure lehen pausok literaturaren munduan?

XABIER DIAZ ESARTE.— Zaleatasuna txikitatik izan dut, baina idazten orain dela hamalau bat urte hasi nintzen. Nire lehen lana, eleberri motz bat, erdaraz idatzi nuen eta Iruñeko Aurrezki Kutxa Municipalak antolatutako eleberri motzeko lehiaketa irabazi zuen. Lehen

baten istorioa da, Ideia moderno eta iraultzaileak ditu irakaskuntzan martxan jartzeko, baina bertara ailegatu eta eskuindarrekin topo egingo du. Oso lan autobiografikoa da, ez niri gertatutako istorioa delako, baizik eta nik ezagututako Iruñea eta Nafarroatik ateratako istorioa delako.

EGUNKARIA.— 'Gracia que esperamos obtener' erdaraz idatzi zenuen, argitaratu berri duzun liburua, ordea, euskaraz. Zein hizkuntza duzu gogokoen idazterakoan?

DIAZ ESARTE.— Egia erran, erdaraz hobeto moldatzen naiz, nire kultur erreferentzia gehienak erdaraz barneratu baititut. Nire estiloa, gainera,

kuntza aldetik behintzat, antzerki gidoiak idaztea, antzerkiaren alorrean, ez bainean erdarazko inolako erreferentziarik. Hori dela eta, eremu berria aurkitu dut antzerkian euskaraz idatzi ahal izateko. Ipuinekin ere berdin gertatzen zait. Erdaraz ez dut helduentzako ipuinik irakurri eta erraza da niretzat euskaraz idaztea. Horretaz gain, euskaraz idatzitako ahalik eta liburu gehien irakurtzen saiatzen ari naiz.

EGUNKARIA.— Zure lehen liburu honen aurkezpenean azpimarratu zenuenez, hizkuntza asko lantzen duzu idazterakoan.

DIAZ ESARTE.— Bai, hala da. Behin eta berriro zuzentzen

NOSKI JATOR

© Zaldi Eroa

HAUTESKUNDEAK ①: Gobernu matxinatua.



Pulitz+Zaldi Eroa